

MUNDUKO DANTZAK





Garoa Salaberria Alzuri

Ikastaro honen helburua haur bakoitzak dantza gaitasuna lantzea eta horrekin batera, munduko hainbat kulturetako dantzak ikastea da. Hortaz gain, ikastaroan haurrak izango dira protagonistak eta urtean zehar umeeek esperientzia polit eta gozagarria izatea bilatuko da.

Mundua oso handia izanik eta kultur asko daudenez, adin tarte bakoitzarentzat urtean zehar 3 dantza lantzea proposatu da, dantzak beti ere haurren adinarentzat egokiak izanik. Horien artean, hego amerikarrak, ipar amerikarrak, afrikarrak, txinatarrak eta abar. Hala ere, dantza printzipalez gain, entrenamendu gisa ere hainbat dantza labur eta errazak egitea proposatu da.

PROPOSATUTAKO DANTZA BATZUK:

- Israeleko "Samoth" dantza.
- Hawai-eko dantza tradizionala.
- Errumaniako "Alunelul" dantza.
- Ganako "Gumboot" dantza.

Klaseei dagokionez, hainbat atal edukiko dituzte. Hasiera (beroketa aldia), dantza printzipala eta amaiera (lasaitasun aldia). Gorputza dantzan jartzeko klase hasieran dinamika bat egingo da edo dantza txiki eta erraz bat. Segidan, ikasten ari garen dantza ensaiatuko da eta azkenik, lasaitzeko dantza lasai batzuk edota dinamika lasaiak landuko dira.